

IRAKASLEAK. DIAGNOSTIKOA**10.3. TRESNA. IKASTETXEAREN DIAGNOSTIKOA.**

Irakurri arretaz ondorengo baieztapen guztiak, eta baloratu noraino zauden ados, 1etik (ez bazaude batere ados) 4ra (erabat ados bazaude).

EMAKUMEEN JAKINTZA ETA HAIEN EKARPEN SOZIAL ETA HISTORIKOA				
19. Jakitun naiz testuliburuetan eta, oro har, kulturen emakumeen presentzia gizonena baino askoz txikiagoa dela.	1	2	3	4
20. Hezkidetzako material didaktikoak ezagutzen eta erabiltzen ditut.	1	2	3	4
21. Gizonen eta emakumeen presentzia orekatua erakusten duten testuak, ipuinak, abestiak, bideoak eta abar aukeratzen ditut, bai kopuruari dagokionez ere, bai okupazioei dagokienez, genero-estereotipoak eta -rolak saihestuz.	1	2	3	4
22. Ikasleentzako motibazio-esparruetako emakume ospetsu eta garrantzitsuen adibideak aurkezten ditut ikasgelan: teknologoak, asmatzaileak, piratak, zientzialariak, idazleak, kirolariak, eta abar.	1	2	3	4
23. Emakumeek gizateriari egiten dizkieten ekarpenei buruzko ikerketa txikiak egiten ditut ikasleekin.	1	2	3	4
24. Emakumeak ikusezin bihurtzearen arrazoiak aztertzen ditut ikasleekin.	1	2	3	4
25. Kontzeptu hauek sartzen ditut: androzentrismoa, patriarkatua, kristalezko sabaia, soldata-arrakala, lanaren sexu-banaketa (Bigarren Hezkuntza).	1	2	3	4
26. Bigarren Hezkuntzako ikasleekin mugimendu feminista eta sufragismoa lantzen ditut.	1	2	3	4
27. Bigarren Hezkuntzako ikasleekin mugimendu feministaren eta sufragismoaren lorpenak aztertzen ditut, gaur egungo emakumeentzat eta gizonentzat dituzten lorpenak barne.	1	2	3	4
28. Nire ikasleek (Bigarren Hezkuntza) genero-berdintasunari buruzko legeria ezagut dezaten laguntzen dut.	1	2	3	4
29. Emakumearen zereginari eta ekarpen sozial eta historikoari buruz dituzten jarrerai eta ideiei dagokienez nork bere burua ebaluatzen laguntzen diet ikasleei, berdintasunezko identitatearen eraikuntzan aurrera egiteko.	1	2	3	4

Talde txikian item bakoitzari emandako erantzunak adosten saiatuko gara, eta argudiatzen eta akordioak lortzen ahaleginduko gara.

Itemetan lortutako puntuazioak aztertu, eta taula honetan sailkatu:

IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA		
	Zenbakiak	Zergatiak
Indarguneak, jardunbide egokiak (4 puntu lortu dituzten itemak).		
Ahuleziak edo hobetzeko egoerak (puntu 1 edo 2 lortu dituzten indizeak).		

Gure ikastetxean hautemandako indarguneak eta ahuleziak ikusita, epe laburrean zer hobekuntza-elementu egin daitezkeen zehaztuko dugu. Kontuan izan behar dugu indarguneak ere hobetu daitezkeela. Horrela, hobetzeko behar horiek formulatuko ditugu, datozen ikasturteetan aurrera eraman ahal izango ditugun helburu gisa.

IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA	
HOBETZEKO BEHARRAK	LORTU BEHARREKO HELBURUAK